2016-I-29
Número **479.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela.eus

astekaria

# EDITORIALA

## Confebask? Lehengo lepotik burua

'1 urtea', Confebaskeko buru Roberto Larrañagaren arabera. Izan ere, Confebaskeko buru Roberto Larrañagak patronalaren helburuak urte berrirako azaldu ditu bere blogean; eta, bestela ezin denez, betiko ildotik jarraitu nahi du –beste hitz batzuk erabiliz– prekarizazioa eta malgutasuna hedatzen, bortxaz ezartzen, araugabetzen eta, nola ez ba, sindikatuak baztertzen, batez ere ELA.

Bere artikuluan zehar jorratzen dituen gaien artean hauek daude: gauzak egiteko modu berriak, lanharremanetan izan den aldaketa sakona, enpresa-eredu berriak, azken 30 urteotako aldaketak ekonomian eta enpresan, eta badela garaia, beti elkarri aurre egiten ibili beharrean, lankidetzan eta elkarrenganako konfiantzaz aritzeko. Horiek horrela izanik, –berak dioenez– zenbait euskal sindikatutako zuzendaritzek ezer gertatuko ez balitz bezala jarraitzen dute edo, zuzenean, horrelako proposamenei uko egiten diete.

Bada, bai, Larrañaga jauna, zuzen zabiltza; baina ELAn, zer gertatzen den badakigulako, hain zuzen, uko egiten diogu zure *proposamen okerrari*. Eskarmentuak erakusten digu gisa honetako planteamenduen atzean helburu bat baino ez dagoela: prekarizazioa, malgutasuna eta inposizioa hedatzen jarraitzea, orain arte bezala baina "1 urtea" mozorroarekin.

ELAk "1 urtean" egon nahi luke, baina agerikoa da 2016. urtean bizi garela, eta ezin dira ahantzi azken urteotan jasandako erasoak (lan-baldintzak, bermeak, eskubideak, lanerreformak, pentsio-erreformak eta abar luze bat). Era berean, ez dira ahaztekoak enpresek egindako milaka kaleratzeak, mehatxuak eta xantaiak.

Gainera, ELAk ez du zalantzarik proposamenaren gaiztotasunaz. Confebask patronalak badaki Eusko Jaurlaritzaren laguntza izango duela, elite ekonomiko eta enpresarialen lagunkide fidel eta leiala baita. Hori esanda, ez bilatu ELAren sostengua, ez baituzue aurkituko.

**Lankidetu!**

**ELAk azpikontrata publikoetan lan baldintzak duintzeko aurkeztu duen LHE-ren aldeko ekitaldia egingo du otsailaren 5ean Gasteizen**

# OTSAILAK 5: DENOK GASTEIZERA!

ELAk azpikontrata publikoetan lan baldintzak duintzeko garatu duen Legegintzako Herri Ekimenaren (LHE) aldeko jardunaldia egingo du otsailaren 5ean Gasteizen. Ekimena fase erabakigarri batean dago. Uneotan Eusko Legebiltzarreko Ogasun Batzordean eztabaidatzen eta tramitatzen ari dira, eta, zoritxarrez, aurreikuspen ezkorrenak betetzear daude. Izan ere, alderdiek orain arte batzordean izan duten jarrera mantentzen badute, Eusko Legebiltzarrak atzera botako du herri-ekimena, orain arte soilik EH Bilduk adierazi baitio bere babesa. Gainontzeko alderdiak, –EAJ, PSE-EE, PP eta UPD–, kontran agertu dira.

**Otsailaren 5ean, denok Gasteizera.** Datozen asteetan gure sindikatuak ahalegin berezia egingo du LHE-a bultzatzeko. Horregatik otsailaren 5ean Gasteizen jardunaldi bat antolatu da. Hitzordua goizeko 10:00tan da, Ogeta pilotalekuan. Ekitaldian Legegintzako Herri Ekimen hau onartzearen garrantzia azpimarratuko da. Horretarako, besteak beste, arazo larri honen ondorioak sufritzen dituzten langileen testigantzak jasoko dira. Ogetako ekitaldiaren ostean manifestazio bat abiatuko da bertatik, Eusko Legebiltzarreraino. Bertan beste ekitaldi labur bat egongo da, ageriko helburu batekin: parlamentariei exijitzea Legegintzako Herri Ekimena onartu eta bere aldeko boza eman dezatela.

**Informazio kanpaina martxan.** Gure sindikatuak egin dituen kalkuluen arabera, herri-ekimen hau aurrera aterako balitz 55.000 langileren lan-baldintzak duintzeko urrats handia emango litzateke. Izan ere, administrazio publikoek eraman duten politiken ondorioz, milaka eta milaka dira inolako babesik gabe azpikontratetan administrazioarentzat lan egiten duten langileak. Gaiaren garrantzia jakitun, ELAk informazio kanpaina bat hasi du. Horretarako agerkari berezi bat argitaratu du, herri-ekimen honen inguruko informazioarekin.

*5 de febrero del 2016. Gasteiz, frontón Ogeta, 10:00. Movilizacion para exigir que se apruebe la ILP que pretende dignificar las condiciones laborales de las subcontratas públicas*


ELA Berriak
EUSKAL SINDIKATUA
Urtarrila-Otsaila 2016 Enero-Febrero
Soberania, langileen aurka
¿110.000 FIRMAS (ILP) A LA BASURA?
eaj pnv · PSE-EE PSOE · PP POPULARES · Unión Progreso y Democracia
ZUEN ERABAKIAK GURE ESKLABOTZA
DIRU PUBLIKOAREKIN AZPIKONTRATAZIOETAN ERE ENPLEGU DUINA
ELA EUSKAL SINDIKATUA

**Trabaz betetako tramitea.** Bide malkartsua izan du orain arte Legegintzako Herri Ekimen honek. 2014ko apirilaren 3an ELAk ekimenaren aldeko 109.396 sinadura eraman zituen Eusko Legebiltzarrera. Hala ere, hasieratik Eusko Legebiltzarrak trabak besterik ez dizkio jarri prozesu honi. Legebiltzarrak azkenean ELAren LHEa baztertzen badu, borroka sindikal honek amaiera goibela izango du. Baina amaiera edozein delarik ere, ELAk prekarietatearen aurkako borrokan jarraituko du, baita azpikontrata publikoetan ere. Ez dugu etsiko Euskal Autonomia Erkidegoan Legegintzako Herri Ekimen hau gauzatu arte, Nafarroan egin zen bezala.

# ETXEKIDE, FRAUDE Y PRECARIEDAD

Gaizka Miguel, responsable de ELA en Etxekide, empresa dedicada a la ayuda domiciliaria, denuncia que la empresa ha dejado de pagar las nóminas a las trabajadoras. "Etxekide se encuentra desde diciembre en proceso concursal. Su objetivo es liquidar la empresa para no cumplir las sentencias judiciales que le obligan y castigan por incumplir diferentes normas en materia laboral. Están derivando servicios a otra compañía creada hace poco y con una evidente relación con los dueños de Etxekide. Quieren empezar de cero con otra entidad".

Miguel denuncia que "la empresa cobra entre 17 y 20 euros por cada hora de atención a domicilio. De esa cantidad la parte destinada a las trabajadoras ronda los 4 euros. Lo hemos denunciado muchas veces, Etxekide explota a las trabajadoras –en su mayoría mujeres e inmigrantes– y las condena a la precariedad más absoluta. Sin olvidar una amplia lista de irregularidades: no tienen calendario laboral, obligan a las trabajadoras a trabajar los dias de libranza, no abonan las pagas extras, no hay reconocimientos médicos... Y todo desde la más absoluta tiranía hacia las trabajadoras".

En estos momentos la plantilla se encuentra con una gran incertidumbre y desprotección. "Las trabajadoras tienen que seguir acudiendo a sus puestos de trabajo sin cobrar, sabiendo que la empresa sigue cobrando por los servicios y a expensas de lo que decida el administrador concursal".



## Dos días de huelga y concentraciones ante el Gobierno Vasco para exigir el derecho de subrogación y el mantenimiento de los puestos de trabajo

# LA PLANTILLA DE GASTRONOMÍA BASKA DICE "SÍ" A LA ILP DE ELA




Si fuera aprobada la ILP de ELA, la difícil situación laboral que están viviendo 17 trabajadoras de Gastronomía Baska no tendría lugar, porque en los pliegos de condiciones de cualquier licitación pública se recogería el derecho de subrogación de todo el personal subcontratado ante cualquier tipo de cambio de empresa.

La última adjudicación de comedores escolares de gestión directa llevada a cabo por parte del Departamento de Educación ha dejado fuera del servicio a la empresa Gastronomía Baska. Eso ha supuesto para la empresa dejar de elaborar 7.000 menús diarios. El problema se encuentra en el personal que elaboraba estos menús y las personas que gestionaban la coordinación administrativa y de organización de las 700 monitoras de comedores escolares al no tener derecho a la subrogación. Y es que en los pliegos de licitación sólo se contempla la subrogación para el personal asignado a los centros escolares (monitoras), no así para el resto del personal que debe elaborar, distribuir, supervisar o gestionar el servicio.

Lucía Puertas, delegada de ELA en colectividades, entiende que el único responsable de la situación en la que se encuentran estas trabajadoras es el Gobierno Vasco, de ahí que durante los dos días de huelga que finalmente se llevaron a cabo (martes 26 de enero y miércoles 27 de enero) se hayan concentrado delante de su sede de Bilbao para exigir el derecho de subrogación y el mantenimiento de los puestos de trabajo. Y es que tal como relata Puertas, "el Gobierno Vasco presentó el proceso de adjudicaciones del servicio de los comedores escolares como innovador y equitativo en cuanto a oportunidad para la entrada a nuevas empresas con el objetivo de optimizar la calidad del servicio. Sin embargo, no sólo no han entrado empresas nuevas sino que ha desaparecido una de ellas dentro de las adjudicaciones (Gastronomía Baska), lo que sumado a la inexistencia de subrogación para parte del colectivo nos deriva a la situación actual".

Lucía Puertas cuestiona la gestión del Gobierno Vasco en la adjudicación de comedores escolares de gestión directa, al priorizar los criterios económicos sobre la calidad del servicio en los procesos de adjudicación, dejando en la estacada a empresas de Euskal Herria y beneficiando a multinacionales y empresas con vistas estatales.

El martes, primer día de huelga, los sindicatos ELA y LAB se reunieron con el Gobierno Vasco para intentar buscar una salida para las trabajadoras afectadas. La respuesta del Gobierno Vasco fue que "al no existir derecho de subrogación no pueden hacer nada". La alternativa de ELA y LAB ha sido poner a disposición del Departamento de Educación una bolsa de trabajo en la que estarían las 17 personas afectadas por el ERE. "Es una herramienta que vamos a poner en disposición de Educación y de las demás empresas adjudicatarias para que las nuevas contrataciones procedan de esta bolsa", explica esta responsable de ELA. "Es una salida para las trabajadoras afectadas por el ERE, no impide llegar al expediente pero queda abierta una puerta en el futuro laboral".

"Es duro intentar buscar la salida menos mala sabiendo que con el derecho de subrogación nada de esto hubiera pasado", destaca Puertas, al tiempo que hace un llamamiento a las distintas fuerzas parlamentarias para que aprueben una ILP que garantiza condiciones laborales dignas a los trabajadores/as de las subcontratas públicas.

Asimismo, esta responsable de ELA anuncia que se marcan como objetivo en el sector modificar los pliegos de condiciones del concurso de comedores, para que en el futuro también sean subrogados los empleados/as de los servicios centrales.

### ¿REVERSIÓN SIN SUBROGACIÓN?

Distinto, aunque con consecuencias similares, es el caso de los 10 trabajadores/as de la limpieza viaria de Oñati. El ayuntamiento de esta localidad guipuzcoana ha decidido asumir y hacer público nuevamente el servicio de limpieza viaria de la localidad. Una noticia a priori positiva que, sin embargo, para algunos se ha tornado en una pesadilla.

En un primer momento, el alcalde, de EH Bildu, aseguró a ELA que iba a subrogar a la plantilla. Sin embargo, meses después adelantó que iba a sacar los puestos a oposición sin tener ninguna consideración con los actuales trabajadores/as, algunos de los cuales llevan más de 20 años en el puesto.

Tras distintas concentraciones y socializar el problema en la localidad, ELA y ayuntamiento están intentando llegar a una solución negociada que permita el mantenimiento de la actual plantilla en sus puestos de trabajo. Tal como explican desde ELA-Gizalan, "hubo un tiempo en el que las Administraciones decidieron privatizar servicios públicos, y nosotros nos manifestamos en contra. Ahora, hay Administraciones que quieren revertir la situación, y nosotros, en principio, estamos a favor, pero siempre que se garantice el futuro laboral de las personas que en ese momento están realizando esos trabajos. No puede ser que tanto cuando las Administraciones toman una decisión o la contraria los paganos sean siempre los mismos". Si el derecho de subrogación estuviera recogido en los pliegos de condiciones de la licitación del servicio, estas 10 personas no estarían ahora con esta inseguridad laboral.

### ILP TRASCENDENTAL PARA EL PERSONAL DE LAS SUBCONTRATAS PÚBLICAS

Trabajadoras de asistencia domiciliaria, limpieza, ambulancias, OTA, intervención social, monitores/as deportivos, visitas guiadas, servicios de información turística, atención en centro de exposiciones, talleres educativos, servicios técnicos... Son miles y miles las personas que trabajan en las subcontratas públicas –más de 55.000, según los cálculos del sindicato–, hasta el punto de que se puede hablar de una auténtica administración paralela.

La ILP de ELA, que introduce cláusulas sociales en los pliegos de licitaciones públicas, por tanto, no es cuestión baladí. Se trata de garantizar un futuro con estabilidad y dignidad laboral para miles de trabajadores/as o, por contra, seguir instalados en la inseguridad y la precariedad. Desgraciadamente, las trabajadoras de Gastronomía Baska y limpieza viaria de Oñati conocen, de primera mano, todo lo que hay en juego.

## LABURREAN / BREVES



### • Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren asanblada Gernikan

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak bere bederatzigarren asanblada egin zuen urtarrilaren 23an Gernikako Astra gunean. Bertan elkartu ziren sindikatu eta gizarte eragileetako ordezkariek iragan urtean egindakoaren balorazioa egin eta datozen urteetarako lan-ildo nagusiak eztabaidatu zituzten.

Orain arte prozesuaren oinarria izan den partehartze dinamika oinarri hartuta, Gernikan elkartu ziren ordezkari guztiek euren ekarpena egin ahal izan zuten.

### • Akordio bikaina LAIP enpresan

ELAk akordio bikaina lortu du Abadiñoko LAIP enpresan. LAIP metalgintzaren sektoreko Enpresa Txiki Ertaina da. Enpresako delegatu bakarra gure sindikatukoa da, eta afiliazio maila oso altua da bertan. Hitzarmenak bi urtetako iraunaldia izango du (2016-2107), eta 36 hilabeteetako ultraaktibitatea.

### • Por el empleo en las contratas de Arcelor Mittal de Sestao

Las contratas de Arcelor Mittal de Sestao realizaron la semana pasada movilizaciones para exigir el mantenimiento de sus puestos de trabajo. Estos trabajadores/as piden que se reconozca a este colectivo como afectados/as directos y, por lo tanto, exigen una solución igual para todos los empleos existentes en la acería de Sestao.

IRITZIA / OPINIÓN

# BEREN BOTEREA MUGATUKO DUEN EZER ANTOLATURIK EZ DUTE PAREAN NAHI



Futbol partidu batean jokalari batek kolpe txar bat hartu eta lurrean botata geratzen bada, aurkariak baloia kanpora botatzen du eta bere onera ote datorren itxaroten du. Horri *fair play* deitzen zaio. Haatik, kapitalaren eta lanaren arteko harremanetan horrelakorik ez da gertatzen; aitzitik, botere ekonomikoak zukua ateratzen dio bestearen ahuleziari. Erortzen bazara, edo botatzen bazaituzte, zure arazoa da. Horixe da kapitalismoa. Bitartean, gobernuek, gutxienik arbitraje eginkizun bat bete beharko luketen arren, ahula babesten duten arauak ezabatzen dituzte. Horrela areagotzen dute gobernuek eta kapitalak ezberdintasuna, inoiz ikusi gabeko mailaraino.

Confebaskek Enpresa Kultura Berria (EKB) sustatu nahi du, non enpresario eta langileen arteko harremana *lankidetza* izango den. Krisi honetan kaleratu dituzten milaka langileei azaldu beharko liekete hori; TRW, ACB, Gaska, Aernnova eta beste hainbat enpresetako jendeari. Eufemismoak alde batera utzita, patronalak benetan beste zerbait nahi du: babes politiko eta sindikala, kapitalaren eta lanaren arteko gatazka amaitzeko. Bere *kultura berria*n enpresarioak alde bakarreko erabakiz finkatuko lituzke lan-baldintzak. Confebask espainiar legeaz baliatzen da borroka urte luzeetan lortutako lan-baldintzak okertzeko. Bere EKBrako negoziazio kolektiboa traba besterik ez da. ELAk lehenago ere jakina zen gauza bat nabarmendu nahi du: enpresa ez da inondik ere eremu demokratikoa.

Egitate bat errepikatu beharra dago: krisia eskubide laboralak suntsitzeko profitatu dute, baina baita –Thatcheren eskuliburuari jarraiki– kapitalismoari aurre egiten dioten identitate kolektiboei erasotzeko ere. Gobernuak bat datoz patronalaren gurutzada antisindikalari dagokionez. Hor dugu adibidez Eusko Jaurlaritzaren ekintza politikoa: Esaterako, Lehendakariak Kataluniari buruz honakoa esaten duenean: *"larritu egiten nau ardura politikorik gabeko herri-mugimenduek baldintzatzea gizarteari kontuak eman behar dizkiogun alderdiak. Korapilatsua da demokrazia errepresentatiboa demokrazia partizipatiboarekin nahastea"*. Lehendakariak ez du txintik esaten enpresen lobbyez, bankuez, konpainia elektrikoez… hauek politika eta gobernuak kontrolpean dituztelarik. Lehendakariaren ustez *arduratsuak* dira aberastasuna metatzen ari direnak, eta setaz saiatzen direnak mobilizazio sozialari eta herritarren botoari indarra kentzen, aldaketa politiko eta soziala lortzea ezinezkoa izan dadin. Gurean politika eta enpresaren arteko joan-etorria zer nolakoa izan den aztertuz gero, ondorioa izango da azken 30 urteetan pertsona *arduratsu* hauek euskal fiskalitatea erabaki dutela. Horiek ez dute kalera irten beharrik izan erreformak baldintzatzeko, eurek egin baitituzte.

Lehendakariak hori esan duenean ez zen soilik Kataluniaz mintzatzen ari. Bere gobernua interpelatzen dugun era guztietako organizazioak zituen gogoan; batik bat berarekin harreman klientelarra izateko aukera ukatzen dugunak. Eurentzat politika esparru erreserbatu bat da. Horregatik, ez du ELArekin bildu nahi. Ez Lehendakariak, ez Lehiakortasun sailburuak, ezta Segurtasunekoak ere. Ez zaie axola %40ko ordezkaritza duen sindikatu baten iritzia negoziazio kolektiboaz, euskal industriaren egoeraz edota Herritar Segurtasunaren Legeaz. Ez gara *arduratsuak*. Agerikoa da errealitate sindikalarekiko zenbateko intolerantzia agertzen duen demokratikoa omen den gobernu honek.

Eusko Jaurlaritza eta Confebask bat datoz: mugimendu sindikal eta sozialaren eragina txiki-txiki eginda utzi behar da; gainera, sindikatuak lantokietatik kanporatu nahi dituzte. Ez dute aurrez aurre izan nahi beren boterea mugatuko duen ezer kolektiborik. Soilik *pertsonak*, *banakoak*. Politikak eta enpresek parean herritar eta langile soila nahi dute, ez antolatuta dagoen ezer. ELAk ondo asko daki sarriegi legeek eta lanhitzarmenek ez dutela benetako eraginik. Gainditu ezineko beldurrak eskubide ugari galarazten du. Batzuk zinismo handiz esango dute eskubideei *borondatez* uko egiten zaiela. Joan den astean lankide batek zioenez, emakume bati kontratu bat eskaintzerakoan enpresak hau esan zion: "hemen aparteko orduak sartu eta ez dira kobratzen". Soldata, 800 euro. Banku batean antzeko egoera bat: "hemen egunero 8 eta 15 ordu bitartean egiten da lan". Kontziliaziorako aukera aparta! Hau da bizitza erreala. Horrela, banaka ez daukagu negoziatzeko indarrik.

Gasteizko gobernuak ordezkaritza egiaztatu ezin eta nahi ez duten patronalak babesten ditu; hots, beren ordezkaritza otorgatua da. EAEko KESeko lehendakariak zioenez, "gehiegikeria da betidanik solaskidetzat aintzatetsi dena zalantzan jartzea". Baina gure ustez normala da patronalen zilegitasuna zalantzan jartzea, ordezkaritzarik ez izateaz gainera negoziazio kolektibo orekatu bat izateko aukerarik ematen ez dutenean eta arau laboraletan zein gizarte ereduan inboluzioaren aitzindari direnean. Oreka guztiak txikitu dituzte eta ez dute merezi mugimendu sindikalak ez duten zilegitasun errepresentatiboa onartzerik.

Jaurlaritza patronalaren jokoan sartzen da esaten duenean bere gizarte eredua "administrazioak, enpresek eta pertsonek" osatzen dutela. Sindikaturik ez dago. *Larritu* egiten ditu borondateak bat eginez jende ahula defenditzeko antolatzen dena; ikara ematen die. Pentsamolde hau aurredemokratikoa da, oinarrizko eskubide kolektiboak babesten dituzten legeetatik urrun. Bai, Jaurlaritzako jaun-andreok, eskubide kolektiboak; eskubideok erabilita izan ziren posible, hain zuzen, orain suntsitzen ari zareten lorpen laboral eta sozialak.

Burujabe izatea nahi duen herriaren nazio eraikuntzarako ELAk uste du ezinbestekoa dela indar politiko, sindikal eta sozialek bat egitea *eusko labela* duen inboluzio honi aurre egiteko. Zein herritaz ari gara? Zer autogobernuz? Pribilegiatuen gorte batek inolako mugarik izango ez duen horretaz? Guk halako herririk ez dugu nahi; hori eraikitzeko ez duzue gure babesik izango. ELAk uste du eusko labeldun inboluzio honek ez diela soilik sindikatuek eragiten; gobernuarekiko posizio autonomoak dituzten organizazio guztiak daude jomugan. ELAk ez du onartu, ez orain arte, ezta aurrerantzean ere, harreman klientelarrik, hauen helburua Eusko Jaurlaritzaren ekintzei buruzko kritika politikoa indargabetzea delarik.

ELAk oso aintzat hartzen ditu gizarte alternatibo baten alde lanean ari diren organizazioak, sindikatua bera ere halakoa baita. Horregatik dihardugu indibidualismoaren aurka eta solidaritatearen alde; horregatik finkatzen ditugu ezinbesteko deritzegun erreferentziak; horregatik ari gara antolakuntza eta sare sozial bat eraikitzen, gure gizarteak behar duen berrindartze ideologiko eta etikoa hortik etorriko delakoan.

***Adolfo Muñoz, idazkari nagusia***

## LABURREAN / BREVES




### • Gurutzetako Ospitalean kalitatezko sukalde publiko baten alde

ELA, LAB, ESK, CCOO eta UGT sindikatuek deituta elkarretaratzea egin zen urtarrilaren 25ean Gurutzetako Ospitalean. Izan ere, zuzendaritzak elikagaien hornidura eredua aldatzea erabaki du. Erabaki honen ondorioz, egun dauden 14 hornitzaileetatik bakarrera igaroko da. ELAren ustez, aldaketa honek catering enpresa handiak hobetsiko ditu, elikagaien banatzaile txikien kaltetan. Gainera, ez dago aldaketa hau justifikatzen duen inolako arrazoirik, orain arte zerbitzuarekiko iritzi guztiak oso onak baitziren. Zentzu honetan, salatu beharra dago zuzendaritzak ez duela ustez bere erabakia justifikatzen duen inolako daturik erakutsi –onura ekonomikoa–. ELAk bere kezka azaldu nahi du; argitaratutako esleipen irizpideak ez dira ziurrak, zerbitzuaren pribatizazioari ateak irekitzen zaizkio eta enplegu publikoa suntsitzea ekar dezakete.

### • Mobilizazioak EAEko irakaskuntza publikokoan

ELA, Steilas eta LAB sindikatuek mobilizazio sorta bat iragarri dute otsailaren 16tik aurrera Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza publikoan. ELAk irakaskuntzan duen arduradun Xabi Irastorzak azpimarratzen duenez, "Eusko Jaurlaritzari hezkuntza politika errotik aldatzea eskatzen diogu, inbertsioa igoz, plantilak handituz, lanpostuak egonkortuz, ordezkapenak lehen egunetik eginez, 58 urtetik aurrera irakastorduak murriztuz eta erretiroa erraztuz, gaixotasun bajak ez zigortuz, galduriko eroste-ahalmena berreskuratuz... Hezkuntza Sailak bide honetan pausorik ematen ez duen heinean, mobilizazio fase bati hasiera emango diogu otsailaren 16tik aurrera".

### • Greba mugagabeak aurrera darrai Doneztebeko Aparan enpresan

Doneztebeko Aparan enpresako langileek greba mugagabean jarraitzen dute 2015eko azaroaren 12tik. Langileek salatzen dutenez enpresak 7 hilabete daramatza hileko nomina ordaindu gabe. Gainera, zuzendaritzak uko egin dio langileek proposatutako bideragarritasun plana aztertzeari. Langileek azpimarratzen dutenez, etorkizunean ere euren etorkizunaren alde mobilizatzen jarraituko dute.

## Mitxel Lakuntza, responsable de ELA en Navarra, analiza los motivos por los que nuestro sindicato no participará en el Consejo del SNE

# "EL GOBIERNO DE NAVARRA MANTIENE SU APUESTA POR UN MODELO CLIENTELAR EN EL SNE"



El 25 de enero se conformó el Consejo del Servicio Navarro de Empleo (SNE). Mitxel Lakuntza analiza, entre otros temas, los motivos por los que nuestro sindicato no participará en el mismo.

**-ELA ha decidido no participar en el Consejo del SNE. ¿Por qué?**

-Siempre hemos dicho que el SNE se utilizaba para financiar las estructuras de UGT, CCOO y CEN, y eso va a seguir siendo así. En los presupuestos aprobados para el 2016 hay más de 5 millones de euros para mantener convenios bilaterales con estas organizaciones.

Recientemente, hemos hecho pública una información sobre el total de las personas de la estructura de UGT, CCOO y CEN que durante 2015 cobraron sus salarios parcial o totalmente del dinero público por medio de estos convenios. Como mínimo, los datos contrastados señalan que fueron 165 personas; de las cuales, más de 110 cobraban el salario completo del dinero público.

En este sentido, hay que recordar que los convenios que el actual Gobierno quiere poner en marcha son ilegales, ya que camuflan y otorgan directamente a UGT, CCOO y CEN los cursos de formación que la ley obliga a sacar a concurso en concurrencia abierta. Este tipo de decisiones confirman la opción del Gobierno de no apostar por un servicio público.

El nuevo gobierno tenía una magnífica oportunidad para revisar la política clientelar y los privilegios que fueron seña de identidad de los gobiernos de UPN-PSN en materia de empleo.

Entre otras cosas, está en juego la igualdad de oportunidades para todos los sindicatos, algo que en Navarra sigue incumpliéndose.

**-Es decir, en este tema la posición del nuevo Gobierno no ha cambiado en lo sustancial con la del anterior...**

-Así es. El SNE no será ni público ni democratico ni transparente, por eso nuestra renuncia a entrar en el Consejo. Lo hemos dicho infinidad de veces: las políticas activas de empleo deben tener como objetivo la mejora de las condiciones para la empleabilidad de los/as trabajadores/as, no la financiación de las estructuras sindicales o patronales.

Es cierto que el Gobierno ha modificado los estatutos para que ELA y LAB puedan participar. Sin embargo, el problema de fondo, el de modelo, no se soluciona dejando participar a las organizaciones críticas, sino abordando el problema de modelo. El Gobierno no ha querido hablar del fondo, no ha querido refundar el SNE, sino maquillarlo.

**-Los estatutos del SNE recogen que los puestos del Consejo de las organizaciones que no asistan se repartirán entre los demás. ¿Qué opinas de este aspecto?**

-Es una decisión antidemocrática que permite alterar la representación. Pretenden usurpar nuestra representación para, de este modo, invisibilizar la crítica de cualquier organización –en este caso ELA– que se oponga a formar parte del Servicio Navarro de Empleo. Una decisión que tiene mayor gravedad cuando hay organizaciones como la patronal que ni siquiera acreditan su representación.

Si los puestos de quienes no asistan al Consejo se reparten entre otras organizaciones ni siquiera están garantizando que la participación en el Consejo sea democrática.

**-Cambiando de tema. En Gobierno de Navarra todavía no ha convocado la OPE de enseñanza. Unas oposiciones que, en teoría, deberían celebrarse en junio.**

-En primer lugar, hay que destacar que el número de plazas ofertadas –320 plazas de maestros y maestras– es claramente insuficiente. Tenemos que tener en cuenta que desde 2011 se han destruido 800 puestos de trabajo y que la tasa de temporalidad supera el 30%. Dicho esto, el Gobierno de Navarra debe convocar las oposiciones a maestros/as cuanto antes para que se celebren en junio; la OPE no puede demorarse. Las fechas avanzan y no queda mucho tiempo.

**-Uno de los motivos para que todavía no se haya convocado la OPE es el tema de las listas. ¿Qué lectura haces?**

-Desde ELA exigimos que se elaboren listas únicas, tanto para la oposición como para las normas de gestión de interinos/as. Navarra es el único territorio del Estado con lenguas cooficiales donde esto no ocurre. No tiene otra explicación que la política sectaria e irracional de UPN para hostigar al euskera.

Hay que recordar que la lista única permite que las titulaciones que un docente tiene y los idiomas que habla no supongan una barrera, sino todo lo contrario: que se valoren como un mérito.

Tal como están ahora las listas, un docente de música que habla euskara y tiene, además, la especialidad de Pedagogía Terapéutica sólo figura en listas de música en euskara, como si no hablase castellano y no se hubiera formado para más. Hay que revisar esta injusticia inmediatamente.

**-¿Por dónde debería empezar el gobierno para corregir esto?**

-Por el respeto a las reglas de las mayorías y minorías. La mayoría de la representación de los/as trabajadores/as solicita las listas únicas. A este respecto, resulta sonrojante que aquellos sindicatos que tildan esta OPE de discriminatoria por incluir más plazas de euskara que de castellano callasen sobre el requisito de inglés.

**www.ela.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

Franqueo concertado
nº 08/207

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela.eus